

**AGINDUA, 2018KO MAIATZAREN 11KOA, OSASUNEKO SAILBURUARENA, AURRETIAZKO BORONDATEEN EUSKAL ERREGISTROA KUDEATZEKO ADMINISTRAZIO-UNITATEAK ZEHAZTEN DITUENA.**

Joan den 2018ko maiatzaren 10ean sartu zen indarrean 66/2018 Dekretua, maiatzaren 2koa, Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroa sortzen eta arautzen duen dekretua aldatzen duena.

Erregistro horrek ematen dituen zerbitzuak herritarrak errazago eskuratzea da aldaketa horren helburua. Ondorioz, desagertu egingo da Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroaren Bulegoa, Erregistroa modu eskusiboan kudeatzen zuena, eta Bulegoak bere esku zituen eginkizunak banatu egingo dira aseguramendu sanitarioko gaitan eskumena duen Osasun Saileko organo zentralaren eta funtzionalki haren mende dauden zenbait administrazio-unitateren artean. Administrazio-unitate horien jarduera-eremua zehaztea ezinbestekoa da erregistroaren funtzionamenduaren deszentralizazioa burutzeko.

Hori dela eta, Aseguramendu eta Kontratazio Sanitarioko zuzendariak egindako proposamenarekin bat etorrita, Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroa sortzen eta arautzen duen azaroaren 4ko 270/2003 Dekretuaren 3.2 artikulua ematen didan eskumenaren arabera,

**EBAZTEN DUT**

**LEHENENGO.-** Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroko administrazio-unitateen jardute-eremua finkatzea honela:

- Administrazio-unitate zentrala: Euskal Autonomia Erkidegoa.
- Arabako Administrazio-unitatea: Arabako Lurralde Historikoa.
- Gipuzkoako Administrazio-unitatea: Gipuzkoako Lurralde Historikoa.
- Bizkaiko Administrazio-unitatea: Bizkaiko Lurralde Historikoa.

**BIGARRENA.-** Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroko administrazio-unitateen atxikipen organikoa finkatzea honela:

- Administrazio-unitate zentrala: aseguramendu sanitarioko gaitan eskumena duen zuzendaritza.
- Arabako Administrazio-unitatea: Arabako Osasuneko Lurralde Ordezkaritza.
- Gipuzkoako Administrazio-unitatea: Gipuzkoako Osasuneko Lurralde Ordezkaritza.
- Bizkaiko Administrazio-unitatea: Bizkaiko Osasuneko Lurralde Ordezkaritza.

**HIRUGARRENA.-** Agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren ohar-taula elektronikoa argitara dadila agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko maiatzaren 11



OSASUN SAILA  
DEPARTAMENTO DE SALUD

JON DARPON SIERRA.  
OSASUNEKO SAILBURUA